ZENBAKI DEZIMALDUNAK:
Irakurtzea eta idaztea

Zenbaki dezimaldunak erabil ditzakegu, adibidez, objektuen prezioak adierazteko.



Zenbaki dezimaldunek bi zati dituzte, koma batek bereizita:

Parte osoa, komaren ezkerrean

Parte dezimala, komaren eskuinean

Parte osoa		Parte dezimala	
H	U	h	e
	9 ,	2	4
2	5 ,	1	8

9,24

9 unitate eta 24 ehunen edo 9 koma 24 irakurtzen da.

25,18

25 unitate eta 18 ehunen edo 25 koma 18 irakurtzen da.

LIVEWORKSHEETS

1) Erreparatu adibideari, eta osatu taula:

Zenbaki dezimalduna	Parte osoa		Parte dezimala		Nola irakurtzen den
	H	U	h	e	
3,15		3	1	5	3 unitate eta 15 ehunen edo 3 koma 15
26,36					
15,09					
9,9					
45,12					
67,7					

2) Idatzi zifraz honako zenbaki dezimaldun hauek:

- Zortzi unitate eta hamaika ehunen
- Hogeita hemeretzi koma hiru
- Hirurogeita hamalau unitate eta hamabost ehunen
- laurogeita hiru unitate eta bi hamarren
- Berrogeita hamabi koma bost
- Hirurogeita bost unitate eta hemeretzi ehunen
- Hogeita hamazortzi koma hogeita hiru

LIVEWORKSHEETS

3) Zein zenbaki da?

- 7 H + 3 U + 5 h + 6 e
- 8 U + 9 h + 1 e
- 4 U + 6 h + 9 e
- 9 H + 9 h
- 2 H + 1 U + 3 h + 5 e
- 2 h + 5 e

4) Adierazi zein zenbakiri dagokion letra bakoitza hurrengo zenbaki zuzenean

- A
- B
- C
- D
- E



5) Zer balio dauka 8 zifrak honako zenbaki hauetan? Erreparatu adibideari. Lotu geziekin.

2,83 → 8 hamarren

8,09	◯ 8 Hamarreko
89,04	◯ 8 Unitate
0,82	◯ 8 hamarren
16,18	◯ 8 ehunen

LIVEWORKSHEETS